

FUNTZIONAMENDU ARAUAK

Ospitalizazioko Unitatea – AURPEGI-MASAIETAKO KIRURGIA

Dei egin behar badiguzu, ERABILI GELAKO TXIRRINA

ARAU OROKORRAK GURE ZERBITZUAN ZAUDEN BITARTEAN

- Ospitaleratutako pazienteak zarenaz, zure osasuna berreskuratzen eta ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen lagundu behar duzu, eta **osasun-sistemak eskaintzen dituen** zerbitzuak egoki erabiltzeaz arduratu.
- Ospitalizazio-unitatetik borondatez irtetekoan, eskatzen dizugu **osasun-langileei kontsultatzea eta informatzea**, laguntza-asistentzialaren jarraipena bermatu ahal izateko; halaber, **ospitaletik ez ateratzeko eskatzen dizugu**.
- Eskatu laguntza behar duzun guztietan.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurdunak edo lur gabeak.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingesaturik dagoen inori buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalen inguruko ardurarik.

EBAKUNTZA EGIN BEHAR IZANEZ GERO, JAKIN BEHARREKOA



Telefonoz abisatuko da.

- Kirurgia amaitu eta pazienteak ABUrak eramaten dutenean.
- Pazienteak ABUtik solairura iristen denean.

MEDIKUAREN BISITA



- Igandean izan ezik, egunero. 10:00etatik 12:00etara, gutxi gorabehera.
- Bisita medikoak irauten duen bitartean, laguntzaileek unitatetik kanpo egon beharko dute igogailuen hall-ean.
- Bisitan, medikuak zure egoeraren berri emango dizu.

SENITARTEKOENTZAKO INFORMAZIO MEDIKOA

Bisitak aurrera egin ahala, unitatean bertan.

OTORDUAK



09:30ean Gosaria
13:30ean Bazkaria
17:30ean Askaria
20:30ean Afaria

BISITAK

- Gehienez pertsona 1 paziente bakoitzeko.**
Nahi izanez gero, senitarteko bat zurekin 24 orduz egon daiteke.

BESTE JAKIN BEHARREKO BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitaleratze-[egiaztagiria](#) beheko solairuko Harreran emango dizute eta 2. B solairuko Idazkaritzan beharrezko datuak apuntatuko dira.



TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000

08:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono-zenbaki honetara deituz: 945000882.

Kanpora deitzeko, [logelatik](#), telebistako txartelaren bidez ere dei dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungitze-datarik; hortaz, berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefono-zenbakira. Telebista- eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke eta.



KAFETEGIA **Ordutegia:** 07:30etik 22:00etara.

Kafetegia erdisotoan dago.

Igogailuak dauden hall-ean kafe- eta freskagarri-makinak daude.



ALTA-EGUNA. Ahal dela, beti aurreko egunean jakinaraziko zaizu.

Alta-egunean komeni da senitarteko batek lagunduta egotea.

Alta-egunean komeni da gela uztea alta-txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.



ERLIJIO-ZERBITZU KATOLIKOA

Harremanetarako telefono-zenbakia: 618 75 14 15.

PAZIENTEAREN ZAKO ETA ERABILTZAILEAREN ZAKO ARRETA ZERBITZUA (PEAZ). Zerbitzu horren beharra izanez gero, Unitateko gainbegiralearen bidez eska dezakezu. **Ordutegia:** 09:00etatik 14:30era (astelehenetik ostiralera).